

## **2001eko IRAILAren 3ko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, bi mila eta bateko irailaren hiruan, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

### **2.- KATASTROKO TARIFEN ALDAKETA**

Toki-Ogasunak araupetzen dituen Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, bere 19. artikuluan eta berau aldatzen duen, otsailaren 12ko 2/2001 Foru Arauaren 6. artikulua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 14. artikulua aldatzea erabaki du.

Horren arabera, ezarri behar diren errekurtsioak eta gaur egun indarrean dagoen sistema tributarioa ikertu dira.

Guzti hori kontuan harturik, zera proposatu da:

Hiri Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren tarifa finkatzea:

Etxebizitzak: 0,150 %

Industriak: 0,175 %

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzako kideen legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, aho batez onartua izan da.

### **3.- KUTXAREKIN MAILEGUA**

Udalbatzak, gai honi buruz eztabaidatu ondoren, Batzarra zuzenbidez osatzen duten kideen beharrezko gehiengo nagusia osatzen duten, zazpi zinegotzien aldeko botoei esker, HAU ERABAKITZEN DU:

### Lehenik

- 1.- Gipuzkoa Donostia Kutzarekin, HOGEITA BOST MILIOI (25.000.000,-) peztatako zenbatekoa duen mailegua kontratatzea; honen ezaugarri berezienak hauek dira, onartu eta ERANSKIN gisa erabaki honi atxikitzen zaion Kontratu-Proiektuaren arabera: Interes-tasa aldakorra, EURIBOR gehi 0,20 puntutan gehitua; amortizazio-epea, 15 urteraino, 2 urteko gabeldia barne.
- 2.- Aipatu maileguaren helburua, Lizartzako Gizarte Gunea, Eskolak, Inbertsio Proiektuak zati batean finantzatzea da.
- 3.- Kontratatutako maileguaren itzulketaren berme gisa, Aurrekontuetako diru-sarrereren printzipalaz eta diren nahiz izango diren ondasun eta eskubide guztien nagusiaz eta subsidiarioaz gain, jarraian datozenok ematen dira:

“Aipatu maileguarengatik, honen interes, komisio, gastu eta zor lekiokkeen ororengatik, Lizartzako Udalarenaren lehentasunezko hartzekodun izaeraz, era berezian lotzen eta kargatzen dira honako baliabideek sor litzaten diru-sarrerak:

### UDAL FINANTZAKETAKO FORU-FONDOA

Itundutako bermearen eragimenerako, era ezeztazinean ahalmena ematen zaio Gipuzkoa Donostia Kutzari, akordio hau kasuan kasuko Erakunde ordaintzailearen aurrean erakusteko betebeharrak bakarraz, aurreko lerroaldean zehaztutako baliabideetan esku hartzearengatik, Lizartzako Udalari sor lekizkiokkeen kopuruak ordaindu ahal diezazkioten”.

4.- Era ezeztazinean Gipuzkoa Donostia Kutxan helbideratzea Udal Finantzaketako Foru-Fondoan esku hartzetik eratorritako diru-sarrerak (Zerga Itunduak) edo, hala dagokionean, haiek ordezkari litzana, Udalak, orain kontratatzen dena barne, formalizatuak dituen maileguen eta kredituen ehuneko berdinean edo handiagoan, zorpetzearen guztikoari datako egunean dagokionez.

Aipatu helbideratzea, kontratatzea den eragiketarik nahiz indarrean diren gainontzeko mailegu eta kredituetatik eratorritako kutxarekiko finantz erantzunbeharrak kitatu artean mantenduko da.

#### Bigarrenik

Ahalmena ematea Udaltzaren Buru den, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE Jaunari, haren izenean eragiketa honen formalizaziorako beharrezkoak liratekeen agiri publiko zein pribatu oro izenpetu ahal ditzan.

#### Hirugarrenik

Erabaki hau eta ondorioetarako ireki den espedientea derrigorrezko informazio publikoan ipintzea arauko 15 egunen epe bitartean.

#### Laugarrenik

Espedientea Gipuzkoako Foru-Aldundiari igortzea, aurretiazko eta derrigorrezko baimena eskuratzeko asmoa.

#### **4.- KREDITU-GAIKUNTZEN ERREGIMENAREN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 2 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA**

Lizartzako Udal honen 2001eko Aurrekontuaren barnean 2. Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 58.572.629,- pezetako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskan ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzailatza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

## **5.- EUSKAL NAZIOZASUN AITORMENAREN AURKAKO ERREKURTSOA**

### **EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO JUSTIZI AUZITEGI NAGUSIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETARAKO SALARI**

Lizartzako udaleko Alkate-Lehendakaria naizen honek, aipatu udalaren izenean eta haren ordeztu, sala horren aurrean agertu eta zera **DIOT**:

Sala horren probidentzia jaso dudala, non euskal naziozetasun aitormenaren agiriari buruz 2001eko Apirilaren 15ean, harturiko udal akordioaren inguruko administrazio espedientea bidaltzeko errekeritzen den eta administrazio honek, interesatu gisa ager daiteken orori dagozkion deiak egin diezazkion agindua.

Era berean, bigarren probidentzia bat jaso dudala zeinaren bidez 10 eguneko epean audientzia ematen zaion Udal honi, Espaniar Estatuko

Abokatuak akordioaren suspentsioa bilatzen duen kautelazko neurriari buruzko eskaerari erantzuteko.

Premiazko izaerarekin eta ondoren Osoko Bilkuraren berrespenaren eraginpean, Alkate-Lehendakari honek ondokoak aurkezten dituela

#### ADIERAZPENAK

#### **LEHENENGOA.- Akordioaren edukiari buruzkoa.**

Lehenik eta behin, zera azpimarratu nahi dut, alegia, Espainiar Estatuko Abokatuak, Udal honek osoko bilkuran onartutako akordioaren edukia eta norainokoa ez duela ulertu edo ez duela ulertu nahi izan. Zentzu honetan, ez gaude Euskal NANaren -Espainiar Estatuko Abokatuak helegiteak tarteratzeko idazkietan adierazi duen bezala eta Espainiar gobernuko beste zenbait instantzik azaldu duten moduan- emisioari buruzko akordio baten aurrean, baizik eta , askatasun osoz euskal naziotasuna aitortzeari buruzko akordio baten aurrean.

Akordioaren helburua da, zioen azalpenean jaso moduan, udalerrri honetako edozein bizilaguni, inongo muga edo diskriminaziorik gabe, naziotasuna hautatu eta aitortzeko aukera bermatzea.

Zehatz mehatz, akordioak euskal naziotasun aitormena edo eusko herriaren parte izate sentimendua edo berarekiko askatasun osoz atxikitzea ahalbideratu nahi du, beti ere, herritaren espainiar naziotasuna dokumenta baitezakete, eta hori, gainera, udalerrri honetan jaiotakoei inposatzen zaie jaiotzen diren une berean.

Azken finean, naziotasuna libreki aukeratzeko herritar guztiek duten eskubide berdintasuna bermatu nahi da, Nazioarteko Zuzenbideak dioena egikaritzuz. Aipatu eskubidea Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak bere 15. atalean jasotzen du; bertan naziotasuna nazioarteko eskubide positibo bezala

definitzen du –gizon-emakume orok naziotasuna aukeratzeko eskubidea dauka-eta, era berean, negatibo bezala –ezin inposa dakioko inori-.

Gauzak horrela, aurtengo Otsailaren 24an Donostiako Kursaal Jauregian, Udalbiltza Erakunde Nazionalak –Euskal Herriko udal eta udal hautetsien batzarra- ospatutako Batzar Orokorrean Euskal Herriko naziotasuna islatuko duen agiria martxan jartzeko proposamena onartu zuen. Eta honela zioen hitzez hitz:

*“Euskal Herrian, naziotasuna onartzeko irizpide nagusia norberaren borondatea izango da. Modu horretan, herritar bakoitzak bere naziotasun aitormena egingo du. Eusko herritar orori, aurretiaz, Euskal Herriko naziotasunari uko egiteko eskubidea onartzen zaio.”*

*“Inori ezer inposatu gabe, baina, era berean, inork guri ezer inposa edo debekatu gabe, prozesu hau aurrera eraman nahi dugu. Inori ez zaio Euskal Herriko naziotasuna inposatuko, Euskal Herriko herritarrek bere herriarekiko duten benetako lotura afektiboa izango baita. Zentzu honetan, herritarren atxikimendua ahalbideratuko dugu.”*

Honengatik guztiagatik, gobernu espainiarraren helegitearen aurrean, honako galdera hau luzatuko dut: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasotako oinarri-oinarrizko nazioarteko eskubideen urraketaren baitan, Lizartzako herritarren hautu libre eta demokratikoa zapuztu eta ukatu nahi al du gobernu horrek?

**BIGARRENA.- Euskal Herritarrek beren naziotasuna libreki gauzatzeko aukera emateko erabakiaren izaera politikoari buruzkoa: Erabakitzeko euskal esparrua.**

1999ko otsailaren 6an Euskal Herriko ehundaka hautetsik, 21 alkatek egindako deialdiari erantzunez, Iruñeako Carlos IIIa zineman Euskal Herriko Hautetsien Batzarra egin zuten. Bilkura honetan, aho batez, udaletan

oinarritutako Erakunde Nazional bat sortzea erabaki zuten; erakunde horrek honako helburuak izango zituen:

*"Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatzea.*

*Euskal Herriko eraikuntza nazionala aldarrikatzea; aipatu eraikuntza prozesu dinamiko eta demokratikoa litzateke, erabakitzeke askatasun osoz eta eusko herritar guztien partehartzea ahalbideratuz.*

*Euskal Herria nazio desberdindu bat dela adieraztea Nazioarteko komunitateari."*

1999ko irailaren 18an Bilboko Euskalduna jauregian Udalbiltza eratzeko batzarra egin zen eta bertan osatutako aldarrikapen politikoak jasotzen duen moduan, *"urratsak emateko balioko digun tresna instituzional bat sortu nahi da, gure herria onartzeko ez ezik, eraikitzeke ere bai, gure nazio identitatea ezkututzen duen banaketaren gainetik"*.

Azken finean, lehen Euskal Erakunde Nazionala sortzen da eta honek Euskal Herriari nazioartean proiektioa izango duen nazio desberdindu moduan jokatzeko ahalbideratuko dio.

Kontestu horretan, eta adierazi dudan moduan, pasa den otsailaren 24an Donostiako Kursaal Jauregian egindako Udalbiltza Erakunde Nazionalako Batzar Orokorrak, ondorengo proposamena onartu zuen: Euskal Herriko naziotasuna islatuko duen agiria abian jartzea.

Beraz, akordio demokratikoa izaki, erakunde nazional batek hartutakoa, erabakitzeke euskal esparruan eta espainiar zein frantziar agintarien eskuetatik at dagoen Nazioarteko Zuzenbidean oinarritutakoa, hots, naziotasuna libreki hautatzeko edo aitortzeko eskubidean oinarritutakoa.

**HIRUGARRENA.- Euskal Erakunde Nazionalak hartutako erabakietan espainiar zein frantziar epaitegien jurisdikzio eza.**

Espainiar zein frantziar agintariak, erabakitzeko euskal esparruan hartutako erabakietatik at gelditzen direla aipatu dut aurreko adierazpenean. Baina hori, zoritxarrez, ez da horrela. Espainiar gobernuak zalantzan jarri du espainiar zein frantziar agintariak naziotasuna erabakitzeko euskaldunek duten eskubidearen ukapena eta urrapena gainditzeko harturiko akordioaren legezkotasuna..

Hori horrela izanik, inpugnatutako akordioaren legezkotasuna eta ontasuna zalantzan jartzeko EZ DAUDE LEGITIMATUAK espainiar agintariak, euskaldunek euren naziotasuna aitortzeko eta beren borondatearen aurka espainiar naziotasuna ez inposatzeko oinarrizko eskubidea ukatu eta urratzen duten eragile beligeranteak diren neurrian.

Espainiar epaitegiak ere EZ DAUDE LEGITIMATUAK Udalbiltzak hartutako erabakiaren zilegitasuna epaitzeko ezta zigortzeko ere, ez baitute jurisdikziorik Euskal Erakunde Nazional batek, sujetu politiko gisa, eusko herriaren eskubidea erabiltzerakoan hartutako erabakiaren gain, alegia, eraikuntza nazionalerako egoki ikusten dituen erabakiak hartzea: EUSKO HERRIARENAK DIRA HITZA ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEA.

Azpimarratu behar dut hartutako erabakia ez dela inongo araudi nazionaletan oinarritzen eta ez duela inolako araudi nazionalak justifikatzen baizik eta eusko herritaren borondatean eta Nazioarteko Zuzenbidean dauka bere justifikazioa.

Beraz, Espainiar Estatuaren abokatuak jarritako helegitean ez da pertsonatuko Udal hau, ez baitu onartzen Estatu Espainiarrak eusko herritarren naziotasuna aske eta demokratikoki hautatzea bermatuko duen akordioa epaitzeko bere gain hartu nahi duen legitimitatea.

Horregatik guztiagatik, espainiar agintari eta erakundeei gure erabakiekiko errespetua eskatu nahi diet, gure erakundeen erabaki politikoekiko errespetua eta eusko herritarren eskubide zibil eta politikoekiko errespetua baita ere.



## **LAUGARRENA.- Egungo marko juridikoa eta Euskal Herriaren burujabetza markoranzko transizioaren arteko izankidetasuna.**

Arestian aipatutakoari jarraiki, auzitegi espainiar eta frantsesek ezin dute erabakitzeko euskal esparruko erabaki politikoetan eskuhartu, hots, Euskal Herriaren eraikuntza nazionalaren baitan, bertako instituzioek har ditzaketen erabakietan.

Hala ere, honek ez du esan nahi legedi espainiarraren aplikazioan, udal honek hartu erabakien inguruan hiritarrek jar ditzaketen helegiteetan aurkeztuko ez denik.

Udal hau jakitun da transizio epe bat iragango dela non espainiar zein frantziar arauditik datozen egiturek eta sortu berri den Euskal Herriko erabakitze esparruak elkarrekin bizi beharko duten. Beraz, Euskal Herriko eraikuntzari dagozkion gaiak, espainiar araudia aplikatuz datozen beste gai administratiboetatik bereiztea aurrikusi du.

Lehenengoari dagokionean, espainiar eta frantziar auzitegien aurrean ez aurkezteaz gain, ez euren legitimitatea, ezta euren jurisdikzioa ere ez ditugu onartuko. Gai administratiboei dagokienean, aldiz, horien legalitatea aztertze eskumena onartuko dugu, esaterako, araudi espainiarraren baitan emandako baimen urbanistiko bat. Zentzu honetan, inpugnatutako egintza administrazioarekiko auzi jurisdikzio espainiarrak eskumena baduela ulertzen dugu, aipatu egintza hori haren araudipean onartua izan baita eta, finean, herritarrek egintza administratiboak jurisdikzionalki berraztertze duten eskubidea bermatzeaz ari baikara.

Edonola ere, espedientea behar bezala zenbatua igorri eta interesdunei deiak egingo dizkiegu.

## **6.- ALKATETZAREN DEKRETUAK**

**AGUA DE INSALUS S.A.**

Insalus plantaren estalkiaren erreforma obrak egiteko BAIMENA ematea, baldintza hauekin:

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

#### RAMON ARTOLA ZUBILLAGA

Lardi Baserriko sarrera hobetu lur euskarri diren hromak eginez, fatxadak dauzkan pritzadurak konpondu eta fatxada pintatzeko BAIMENA ematea, baldintza hauekin:

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

#### UR NATURAL MINERALAREN ONTZIRAKETA LEGEZTATZEA

Herri honetako, A-5 Arean, Ur Natural Mineralaren Ontziraketa jartzeko, Agua de Insalus S.A.k egindako ikuskaritza bisita eskaeraren arabera, 2001eko Ekainaren 29an, Udaleko Arkitektoak eginiko Ikuskaritza Aktaren arabera, ERABAKI DUT:

- 1.- Eskatzen ziren baldintza eta neurri zuzentzaileak bete direnez, Akitibitate hori baimentzea.
- 2.- Ebazpen honen berri, Iharduera Gogaingarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsu Lurralde Batzordeari jakineraztea.

#### M<sup>a</sup> JOSE BENGOETXEA ALTUNA

Elbarrena 14ean dagoen Hirurene Etxeko leihoaketa portaleko atea aldatzeko BAIMENA ematea, baldintza hauekin:

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

#### AITOR DE DIOS URKIA

Kale Nagusia, 13, 2. Solairuan etxebizitza berritzeko eta birrantolatzeko egokitze lanak egiteko baimena ematea, baldintza hauekin:

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

Ireki nahi den leiho berria, etxeko beste leihoen tamaino, forma berekoa izan beharko du eta beheko etxeko leihoaren parean egingo da.

Behin obra bukatuta, antolakuntza berriaren oinplanua aurkeztea eskatzen da.

#### LIERNI GARAIKOETXEA ALTUNA

Elbarrena Kalea, 1 – 1. B etxebizitzan, barruko banatze hormak bota eta berriak egin eta leihoak aldatzeko baimena ematea, baldintza hauekin:

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

Kontainerra balkoi azpian jarri ahal izango da, beti ere, azpian dagoen garajeko sarrera trabatu gabe eta ondorioz, elizaldeko eskilarataruntz. Eskilaretan gora paso eroso utzi beharko da.

Behin obra bukatuta, antolakuntza berriaren oinplanua aurkeztea eskatzen da.

#### ESTANIS AGIRRE ZABALA

Zumitza Baserriaren atzekaldean dagoen tejabana luzatzeko BAIMENA ematea, baldintza hauekin:

Estalki osoa berritu behar bada, Arau Subsidiarioen 19. Artikuluaren arabera, teila keramikozkoa edo antzeko materialekoa izango da.

#### RAMONA ARTOLA ZUBILLAGA

Lardi Baserriaren etxe aurreko biltegiaren estalkia aldatzeko BAIMENA ematea, baldintza hauekin:

Obra egiterakoan, biltegiaren dimentsioak bere hortan mantendu beharko dira eta estalkia, Arau Subsidiarioen 19. Artikuluaren arabera, teila keramikozkoa edo antzeko materialekoa izango da.

#### IGOR OLANO

Ainene Berri Etxeko 1.goa ez, obrak egiteko BAIMENA ematea, baldintza hauekin:

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

Behin obra bukatuta, antolakuntza berriaren oinplanua aurkeztea eskatzen da.

### LORENZO ZUBELDIA

Lorenzo Zubeldia Aierbe Jauna, Soroanea Etxean, baimenik gabe egiten ari den obrak ikusi ondoren.

Ekainaren 26ko 1/1992 Errege-Dekretu Legegilearen bidez onartutako Lurzoruaren Erregimena eta Hiri-Antolamenduari buruzko Testu Bateratuaren 248-1 zen.dun artikulua ikusi ondoren eta baita ekainaren 23ko 2187/78 Errege-Dekretuz onartutako Hirigintza-Arauaren Erregelamenduko 29 artikulua ere,

HONAKO HAU ERABAKI DU:

- 1.- LORENZO ZUBELDIA AIERBE Jaunak, SOROANEA Etxean, baimenik gabe, burutzen ari den obrak berehala etetea.
- 2.- Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuaren 248. Artikuluan aipatutako espedientearen izapideketa.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.